

2023an, Euskal AEko landetxeetan sarrerak 2022koak baino % 2,3 handiagoak izan dira, eta apartamentu turistikoetan % 24,7

Atzerriko jatorriko pertsonen ostatu-gauen kopuruaren urteko hazkundera % 16,4koa da landetxeetan eta % 26,5koa apartamentu turistikoetan

Euskal AEko **landetxeei** dagokienez, **2023an** hobekuntza txiki bat izan da okupazio-aldagaietan 2022aren aldean: % 2,3ko igoera izan da sarreren kasuan eta % 2,8koa ostatu-gauen kasuan. Horrela, 2023an 172.918 sarrera izan dira landetxeetan eta 446.374 ostatu-gau egin dira, Eustaten datuen arabera.

Urtean zehar sarrerak gehitu egin dira Araban eta Gipuzkoan, % 0,3 eta % 4,9ko gehikuntzekin, hurrenez hurren; Bizkaian, aldiz, sarrera kopurua aurreko urtekoa baino % 0,5 txikiagoa izan da. Aurreikusitako ostatu-gauen kopuruari dagokionez, hiru lurraldeek 2023an igoerak izan dituzte 2022an izandako datuen aldean. Gipuzkoan % 0,4 gehitu da kopuru hori, Bizkaian % 3,9 eta Araban % 9,2.

Atzerriko bisitariak Euskal AEko mota horretako establezimenduetako sarrera guztien % 25,0 izan dira 2023an, 2022an baino % 18,5 gehiago.

Euskal AEko landa-ostatuetakoko sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023	p/p-1 (%)	2023	p/p-1 (%)	2023	2022	2023	p.p. *	2023	p.p. *
EUSKAL AE	172.918	2,3	446.374	2,8	2,58	2,57	28,9	1,6	32,8	1,5
Estatukoak	129.754	-2,1	343.143	-0,6	2,64	2,61	-	-	-	-
Atzerritarak	43.164	18,5	103.231	16,4	2,39	2,43	-	-	-	-
Araba/Álava	30.490	0,3	74.175	9,2	2,43	2,24	19,3	1,3	22,3	1,3
Estatukoak	25.721	-3,3	62.444	5,7	2,43	2,22	-	-	-	-
Atzerritarak	4.769	25,2	11.731	31,9	2,46	2,33	-	-	-	-
Bizkaia	53.049	-0,5	136.048	3,9	2,56	2,46	30,1	1,6	33,9	1,6
Estatukoak	39.934	-4,5	104.696	0,8	2,62	2,48	-	-	-	-
Atzerritarak	13.115	14,0	31.352	15,5	2,39	2,36	-	-	-	-
Gipuzkoa	89.379	4,9	236.151	0,4	2,64	2,76	33,3	2,0	37,7	2,0
Estatukoak	64.099	0,0	176.003	-3,5	2,75	2,85	-	-	-	-
Atzerritarak	25.280	19,7	60.148	14,2	2,38	2,49	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Data 2024ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeetako batez besteko egonaldia 2,58 egunekoa izan da 2023an, 2022an erregistratu ziren 2,57 egunen antzekoa. Okupazio-maila, bestalde, % 28,9koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 32,8koa logelen arabera neurtuta, aurreko urtearen aldean ehuneko 1,6 eta 1,5 puntu igo ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistikoen 2023ko urteko balantzean**, 2022ko datuekin alderatuta, hobekuntza ikusten da, bai sarreren kopuruari dagokionez, bai ostatu-gauei dagokienez. Urte osoa hartuta 176.781 sarrera eta 627.157 ostatu-gau izan dira guztira, eta 2022. urtearen aldean urteko igoerak % 24,7 eta % 17,0koak izan dira, hurrenez hurren.

Sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023	p/p-1 (%)	2023	p/p-1 (%)	2023	2022	2023	p.p. *	2023	p.p. *
EUSKAL AE	176.781	24,7	627.157	17,0	3,55	3,78	37,1	1,2	62,3	-1,0
Estatukoak	113.473	18,9	395.147	12,0	3,48	3,69	-	-	-	-
Atzerritarrak	63.308	36,7	232.010	26,5	3,66	3,96	-	-	-	-
Araba/Álava	16.221	13,9	97.991	3,9	6,04	6,62	25,4	1,2	63,1	-3,2
Estatukoak	13.862	12,2	71.688	-2,8	5,17	5,97	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.359	24,8	26.303	28,2	11,15	10,86	-	-	-	-
Bizkaia	110.689	20,4	265.756	20,5	2,40	2,40	37,5	0,7	49,5	-1,9
Estatukoak	71.116	17,3	162.917	18,5	2,29	2,27	-	-	-	-
Atzerritarrak	39.573	26,3	102.839	23,8	2,60	2,65	-	-	-	-
Gipuzkoa	49.872	40,2	263.410	19,0	5,28	6,22	44,3	0,2	73,7	2,3
Estatukoak	28.495	26,8	160.542	13,5	5,63	6,30	-	-	-	-
Atzerritarrak	21.376	63,1	102.868	28,9	4,81	6,09	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Data 2024ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2023an jasotako sarrerak eta ostatu-gauak hazi egin dira, 2022an jasotakoekin alderatuta, hiru lurraldeetan, baina intentsitate desberdinarekin Apartamentu turistikoetako sarrerak, guztira, % 13,9 handitu dira Araban, % 20,4 Bizkaian eta % 40,2 Gipuzkoan. Ostatu-gauen kopurua, bestalde, % 3,9 igo da Araban, % 19,0 Gipuzkoan eta % 20,5 Bizkaian.

Atzeritar jatorriko pertsonen sarrerak, urtean zehar % 36,7ko igoera izan ondoren, Euskal AEko mota horretako establezimenduetan 2023an izandako guztizkoaren % 35,8 izan ziren, 2022an izandako % 32,7aren gainetik.

Plazen okupazio-mailak ehuneko 1,2 puntu gaintitu du 2022an lortutako emaitza, eta apartamentu bakoitzeko okupazio-mailak ehuneko puntu bat egin du behera; 2023an % 37,1 eta % 62,3 izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** buruzko datuak argitaratu diren lehen urtea igaro ondoren, **2023ko urteko balantzean** ikusten da aurreko urtearen aldean % 7,6ko hazkundea izan dela sarrera kopuruan eta % 6,3koa ostatu-gauetan, urte osoan 222.174 sarrera eta 401.124 ostatu-gaurekin. Sarreraren urteko igoera % 6,4koa izan da Gipuzkoan, % 7,1koa Bizkaian eta % 34,0koa

Araban. Era berean, ostatu-gauak urte osoan % 5,1 egin dute gora Gipuzkoan, % 6,6 Bizkaian eta, azkenik, % 17,5 Araban.

2023ko abendua

Urteko azken hilabetea, 2023ko abenduan, Euskal AEko **landetxeetan** sarrerak eta ostatu-gauak % 11,8 eta % 9,2 murriztu dira, hurrenez hurren, aurreko urteko abenduan ikusitako datuekin alderatuta, eta 11.546 eta 25.704n kokatu dira, hurrenez hurren.

2023ko abenduan, jatorri nazionala zuten pertsonak izan dira nagusi bai sarreretan bai ostatu-gauetan, guztizkoaren % 88,9 eta % 89,8, hurrenez hurren

Araban 3.243 sarrera erregistratu dira, aurreko urteko abenduan baino % 0,4 gutxiago; Bizkaian, % 3,0 jaitsi ondoren, 3.201 sarrera erregistratu dira, eta Gipuzkoan, abenduan, aurreko urteko abenduan baino % 22,0 gutxiago, 5.102 sarrera erregistratu.

Aztertutako ostatu-gauetan joera desberdina izan da: Araban % 4,6 gehitu da eta 7.074 ostatu-gau izan dira; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 17,6ko eta % 11,2ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren, eta 6.490 ostatu-gau zenbatu dira Bizkaian eta 12.140 Gipuzkoan.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abendua 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	2022/12	2023/12	p.p. *	2023/12	p.p. *
EUSKAL AE	11.546	-11,8	25.704	-9,2	2,23	2,16	21,0	-1,1	23,9	-2,4
Estatukoak	10.265	-11,7	23.286	-8,4	2,27	2,19	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.281	-12,9	2.418	-16,3	1,89	1,96	-	-	-	-
Araba/Álava	3.243	-0,4	7.074	4,6	2,18	2,08	22,5	1,2	22,2	-0,9
Estatukoak	3.131	-3,3	6.940	3,2	2,22	2,08	-	-	-	-
Atzeritarrak	112	489,5	134	282,9	1,20	1,84	-	-	-	-
Bizkaia	3.201	-3,0	6.490	-17,6	2,03	2,39	19,0	-2,6	22,4	-5,9
Estatukoak	2.703	-13,1	5.425	-25,3	2,01	2,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	498	162,1	1.065	73,5	2,14	3,23	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.102	-22,0	12.140	-11,2	2,38	2,09	21,4	-1,5	25,7	-0,8
Estatukoak	4.431	-16,0	10.921	-4,5	2,46	2,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	671	-46,8	1.219	-45,6	1,82	1,78	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetea izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Mota horretako establezimenduetan, Euskal AEko batez besteko egonaldia 2,23 egunekoa izan da abenduan, 2022ko hil berean ikusitako 2,16 eguneko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa.

Plazakako eta gelakako okupazio-mailek ehuneko 1,1 eta 2,4 puntuko urte arteko beherakada izan dute, hurrenez hurren. Hala, plazakako betetze-maila % 21,0ekoa izan da eta gelakako betetze-maila % 23,9koa.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2023ko abenduan** sarrerak eta ostatu-gauak 11.534 eta 47.046 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduaren aldean, sarrerak % 7,6 gehitu dira eta ostatu-gauak % 3,6.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Abendua 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	2022/12	2023/12	p.p. *	2023/12	p.p. *
EUSKAL AE	11.534	7,6	47.046	3,6	4,08	4,24	31,8	-1,3	58,3	-1,2
Estatukoak	8.962	4,2	33.964	1,4	3,79	3,89	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.572	21,7	13.082	10,0	5,09	5,62	-	-	-	-
Araba/Álava	820	-27,8	8.684	16,7	10,59	6,56	26,2	3,6	68,0	9,7
Estatukoak	758	-29,6	5.857	5,2	7,73	5,18	-	-	-	-
Atzerritarrak	62	5,4	2.827	51,0	31,00	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	7.719	4,5	17.613	-7,0	2,28	2,57	27,4	-5,8	36,0	-5,8
Estatukoak	6.051	2,0	13.187	-11,1	2,18	2,50	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.668	15,2	4.426	7,9	2,65	2,83	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.996	36,3	20.749	9,1	6,93	8,65	41,0	0,9	75,7	-0,5
Estatukoak	2.153	35,3	14.920	13,9	6,93	8,23	-	-	-	-
Atzerritarrak	842	38,7	5.829	-1,5	6,92	9,74	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzerritar jatorriko bisitarien kopurua Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta ostatu-gau guztien % 22,3 eta % 27,8 da, urte arteko % 21,7ko eta % 10,0eko gehikuntzen ondoren, hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia 4,08 egunekoa izan da 2023ko abenduan, 2022ko abendukoa (4,24 egun) baino laburragoa. Lurralde historikoei dagokienez, balio hori 2,28 egunekoa izan da Bizkaian, 6,93 egunekoa Gipuzkoan eta 10,59 egunekoa Araban.

Plazen araberako okupazio-maila % 31,8koa izan da Euskal AEn, eta % 58,3ra iritsi da apartamentuen arabera neurtuta. Horrek esan nahi du ehuneko 1,3 puntuko beherakada izan dela plazen okupazioaren kasuan, eta ehuneko 1,2 puntukoa apartamentuen okupazioaren kasuan.

Aterpetxe turistikoei dagokienez, **2023ko abenduan** sarrerak eta ostatu-gauak 8.884 eta 16.203 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduaren aldean, % 19,8 jaitsi dira sarrerak eta % 23,3 ostatu-gauak.

Informazio-oharra

Landetxeetako Egoiliarren Turismo Inkestaren erantzun-tasa % **69,9**koa izan da, Apartamentu Turistikoetakoena % **79,05**ekoa eta aterpetxeetakoen kasuan % **80,8**koa 2023ko abenduan.

Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62